



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gratu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA
2013-2014 ikasturtea

NOREN ALDE HEZTERA ZOAZ?

Etika hegemonikoa versus gizartea

Egilea: Ainara Wain Martin

Zuzendaria: Begoña Bilbao Bilbao

Leioan, 2014ko ekainaren 16an

© 2014, Ainara Wain

AURKIBIDEA

Sarrera	4. or
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	6. or
2. Metodologia	9. or
3. Lanaren garapena	
3.1 Egoera.....	10. or
3.2 Hezkuntza ez neutrala	11. or
3.3 Metodologia	13. or
3.4 Freireren ikuspegi pedagogikoa praktikan	17. or
4. Emaitzak eta ondorioak	23. or
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	25. or

ERANSKINAK

Galdetegia Arantxa Ugartetxeari.....	27. or
---	---------------

“NOREN ALDE HEZTERA ZOAZ?”

ETIKA HEGEMONIKOA VERSUS GIZARTEA

Ainara Wain Martin

UPV/EHU

Lanak planteatzen duen galdera, hezitzaileek bere eginbeharraren inguruan hausnartzera bideratuta dago. Egungo sistema kapitalistaren barruan hezkuntzak duen erabilera desestali nahian, bizi dugun egoera aztertu egin da eta erabiltzen diren kontrol mekanismoak. Egoera honen aurrean, behar den hezkuntza erantzuna zabaldu nahi da, Paulo Freireren pedagogia eragilearen (problematizatzailearen) ildoan. Horretarako, aspektu teoriko nagusiak zehaztu dira eta ikuspegi kritikoa praktikan jartzeko esperientziak aurkeztu. Gure pedagogia erresistentziaren pedagogia izan behar du, egun kapitalismoak isiltasunera eta deshumanizaziora bultzatzen dituen pertsona horiek hitza berreskura dezaten. Lan hau beraz, ekarpen didaktikoa da hezitzailearen eginbehar konplexu eta arduratsuan laguntzeko, bere erantzukizun soziala gain har dezan.

Erantzukizun soziala, hezkuntza, ikuspegi kritikoa, Paulo Freire, pedagogia eragilea.

La pregunta que plantea el trabajo busca la reflexión de los educadores sobre su quehacer educativo. Con el fin de desvelar el uso de la educación dentro del sistema capitalista actual, se ha analizado la situación actual y los mecanismos de control existentes. Ante esta situación, se quiere difundir la imperiosa respuesta educativa basada en la pedagogía problematizadora que propone Paulo Freire. Para ello, se han concretado los principales aspectos teóricos y se han presentado las experiencias llevadas a cabo para poner en práctica una perspectiva crítica. Nuestra pedagogía ha de ser la pedagogía de la resistencia, para que las personas sumidas en el silencio y la deshumanización recuperen su palabra. Este trabajo pretende ser un aporte didáctico para ayudar en el quehacer complejo y responsable del educador, para que asuma su responsabilidad social.

Educación, pedagogía problematizadora, perspectiva crítica, Paulo Freire, responsabilidad social

The question posed by this regard wants to promote the reflection of teachers about their educational work. In order to reveal the use of education within the current capitalist system, has been analyzed the actual situation and existing control mechanisms. In this situation, the regard wants to disseminate the necessary educational response, based on the problematizing pedagogy proposed by Paulo Freire. For this, have been fixed the main theoretical aspects and presented the experiments carried out to implement a critical perspective. Our pedagogy must be the pedagogy of resistance, so that the people living in silence and dehumanization regain their word. This research aims to contribute to help in the complex and responsible task of the educator, to assume her/him social responsibility.

Critical perspective, education, social responsibility, problematizing pedagogy, Paulo Freire

SARRERA

Egungo gizarte modernoa publizitate antolatu baten eta mitoen indarraren menpe bizi da; zorigaitz honek pertsonak euren kabuz erabakiak hartzeko gaitasunari uko egitea suposatzen duelarik. Bitartean, munduan gatazkak eta injustiziak etengabeak dira, baina askok modu akritiko eta natural batean onartzen dituzte, jada ez dira hunkitzen, ohikoa bihurtu da horrelakoak gure inkontzientzian finkatzea.

Honen aurrean, kontzientzia kritikoa bultzatzen duen hezkuntza baten beharra ezinbestekoa dugu, zehazkiago, Freireren arabera: informazioaren, erabilitako hizkuntzen eta kodigo sinbolikoen deskodifikazioa ahalbidetzen duen alfabetizazioa, errealitate sozial, politiko eta ekonomikoaren ulermen kritikoa suposatzen duen prozesu moduan ulertuta. Hori dela eta, lan hau gure hezkuntza-praktikak paradigma kritikoan kokatzearen aldeko apustua da.

Hezkuntza paradigmen aukeraketak errealitatea hezkuntza-gatazka zein hezkuntza irakaskuntza prozesua modu batera edo bestera ulertzera eramango gaitu, Karmele Perez Urrazak “*Ezagutzaren hautaketa ikasmaterialetan*” azaltzen digun moduan. Ikuspegi kritikoak eskola gizartearen barne dagoen entitate moduan ulertzen duelarik, bere testuinguru sozioekonomikoan eta kulturean jokatzeko duen paper politiko eta ideologikoa aintzat hartzen du. Hortaz, auto-ulerketara, kritikotasunera eta autodeterminaziora bultzatzea bilatzen duen hezkuntza definitzea bilatuko da, bere helmuga emantzipazioa lortzea delarik.

Pedagogia kritikoaren aitzindari Paulo Freire dugu, bere ingurunea transformatzeko konpromisoa hartu zuelarik, praktika eta teoria transformatzaileak garatu zituen, zapalketa eta sufrimendua gainditzearen alde. Bestalde, bere teoriak aztertu eta kritikatu, bai proposatutako praktikak frogatu dituzten egileak ere baditugu. Lan hauetatik guztietatik abiatuz, Freireren filosofia pedagogikoa aztertuko da, egindako ekarpenak zabalduz bere beharra azaleratzen den testuinguruan, Euskal Herria mundu globalizatuaren barne. Azterketaren alde positiboa bere inguruan asko ikertu dela dugu, hortaz, artikuluak, konferentziak, liburuak, tesiak, esperientziak... ugariak dira eta azken hamarkada hauetakoak. Horrez gain, bere unibertsaltasunari esker, nahiz eta Freire brasildarra dugun, gaztelaniaz aurki ditzakegu guzti hauek.

Jarraian, ikerketa egin bitartean erantzuna aurkitzeko xedearekin planteatutako galderak aurkezten ditut, Freire hautatzera eta bere inguruan lan egitera motibatu nautenak.

- Galdera orokorrak:
 - Desagertu al dira Paulo eta beste batzuk <<hezkuntza herrikoia>> proposamena garatzera motibatu eta eragin zuten arazo eta egoerak?
 - Noren alde hezten dugu?
 - Posible al da alfabetizazioaren bitartez gizartearen eskemak apurtzea?
- Galdera zehatzak
 - Zein da hezkuntzaren edukia? Zer da irakasteko legitimoa?
 - Posible al da hezkuntza politikatik bereiztea?
 - Zeintzuk dira irakasle baten zereginak?
 - Beharrezkoa al da curriculumaren berreraiketa?
 - Aplikagarriak al dira Freirek egindako ekarpenak?

Galdera hauei erantzuna aurki diezaiedan honako helburuak ezarri ditut:

- Helburu orokorra:
 - Freirek eraikitako teoria eta praktika transformatzaileak ezagutu
 - Freireren ekarpenak txertatu formazioan eta eztabaida pedagogikoan
- Helburu zehatzak:
 - Freireren pentsamenduari forma eman zioten baldintzak ezagutu.
 - Freireren ikuspegi filosofikoak eta printzipio pedagogiko nagusiak zehaztu
 - Hausnartu ohiko praxiaren inguruan, errealitatearen transformaziorako.
 - Irakaslearen egunerokotasuneko lana estimulatu eta giro parte-hartzaile eta dialogikoa garatu eskola eta unibertsitateetan.
 - Freireren pentsamenduan oinarritzeko aurkituko diren oztopoak aurreikusi.

Freirek proposatutako pedagogia hau ezagutzeko, lehenbizi Euskal Herrian zein mundu globalean bizi dugun egoera aztertu da, Freireren ikuspegiaren beharra justifikatuko duena. Hortik abiatuta bere ikuspuntuaren ildo nagusiak zehaztu dira eta praktikan jarri diren ekimenak aurkeztu. Azkenik, lana borobiltzeko, filosofia hau praktikan jartzeko oztopoak eta eginbeharrak zehaztuko dira.

1. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA

- Argudio epistemologikoak

Paulo Freire (1921-1997) XX. mendeko pedagogo aipagarrienetakoa da, erreferente nagusia delarik politika askatzailean eta hezkuntzan. Bere etengabeko lana zapalketaren eta sufrimenduaren aurkako amorru osasuntsu batek bultzatua izan zen, bere inguruaren ekintza transformatzailearekin konprometitua zegoelarik. Horrela, diskurtso posmodernoak eta hezkuntzaren ikuskera zapaltzailea desmitologizatu zituen. Egindako lan guztiak lan praktikotik abiatutako hausnarketa teorikoak dira, denbora aurrera egin ahala, berreraikitzen doana. Nuñez-ek (2007:19) bere proposamena “antikapitalista, antihegemonikoa eta mendebaldeko kulturaren eztabaida sustatzen, bai dominazio harremana naturalizatzen duena” bezala definitzen du. Izan ere, pertsonen ikusmoldeetan aldaketak eragiten ditu, indibidualki praktika sozialetan eragina dutenak.

Egun indar handia duten autore batzuegandik oso hurbil kokatzen du Torres¹-ek (1997:10) Freireren pentsamendua, hala nola Habermasen “Komunikazio egintzaren teorian” pertsona guztien ahotsekin eraikitako elkarrizketa defendatzen duenean, bai ezberdintasunaren onarpena berdintasunean. Vigotskyrekin ere bat egiten du kontzientziari emandako roll-ea; eta Cole eta Scribner-ek pedagogia freireanoa euren proposamenarekin bat zetorrela zioten. Hortaz, ulertezina da egun eragina duten egileek, Freireren pentsamenduari asko hurbiltzen diren tesiak planteatzen dituztela, baina Freirerenganako inolako interesik erakutsi gabe.

Izan ere, “gizarte zientzietako punta-puntako gaiak, hots, elkarrizketa, transformazioa, fatalismoaren gainditzea, hausnarketa.... bezalako kontzeptuak bat datoz Freireren filosofiarekin” (Torres, 1991:10) . Torres-ek (1991: 5) dio, <<XX. mendeko hezkuntza eztabaidetan eta proposatu zuen filosofia eta “sistema” modu masiboan zabaldu dira, non azken 30 urteotan pedagogia kritikoaren inguruko eztabaiden ardatzak berak proposaturiko “gai sortzaileak” izan diren>>.

Pedagogia mugimenduei begira, Freireren eta konstruktibismoaren artean gertutasun handia dago, bat egiten dutelarik ideia anitzetan, hala nola: munduarekiko errespetua, ikaslearen esperientziak, ikaskuntza ikuspegiak, alfabetizazioa ekintza sortzailea eta ezagutza ekintza moduan ulertuta, ikaslea subjektu bezala, ez teknika baten bereganatze soilaren objektu bezala, idazkeraren ikaskuntza testuinguruaren ikaskuntzarekin batera...

¹ Torres-ek A la sombra de este Árbol prologoa idazten du, Freireren marko teoriko kontzeptuala zehaztuz.

- Argudio teoriko kontzeptualak eta gaiaren egungo egoera.

Bere pentsamendua jarraitu duten esperientziei begira, “80ko hamarkadaren hasierara arte, helduentzako alfabetizazioaren eremu espezifikoan, programen eta kanpainen gehiengoek Freire izendatzen zuten eta bere planteamenduak iradoki” (Torres, 1997b:4). Horrez gain, ere dio “hezkuntza Latinoamerikarreko azken hiru hamarkadetako produkzio intelektualari so eginez, Freireren aipamena gorputz eta bibliografietan oso ugaria dela. Ez hori bakarrik, Argentinako hezkuntza desentralizazioaren inguruko liburu baten arabera, Eskola Kontseiluak (1977an sortuak) Freireren printzipioetan oinarritzen dira”. Nuñez-ek (2007:12), Michoacan-en hiritarren kontsultarako eta problemen eta politika publikoetan parte hartzeko proposamena egin dela aipatzen du, Freirerengandik ere inspiratutakoa.

Freireren ekarpenen inguruan egindako ikerketak ugariak dira, hala nola: *Diálogos con Freire para una pedagogía universitaria* (Omayra Parra de Marroquin, 2007), *Paulo Freire y la psicopedagogía de la liberación* (Anastasio Ovejero, 1997) *Una vida de lucha, compromiso y esperanza* (Henry A. Giroux, 1998), *El pensamiento de Paulo Freire: sus contribuciones para la educación* (Liliana Iovanovich, 2003)...

Ikerketa lan honek beraz, iturri anitzetatik edaten du: liburu, artikulua, ikerketa... baita elkarrizketatik ere. Arantxa Ugartetxearekin biltzeko aukera izan dudalarik, pedagoga, idazlea eta Freireren ikasle ohia dena, galdetegi bat prestatuko diot. Elkarrizeta bat “zehaztutako helburu bat duen elkarrizketa da, ez hitz egitearen satisfazio hutsa” (Bingham&Moore, 1959:13). Hiru helburu desberdin izan ditzaketela diote, hots: informazioa eskuratzea, informazioa erraztea ala elkarrizketatuaren jarreraren gaineko hainbat aspektutan eragitea. Kasu honetan, informazioa eskuratzerantz bideratutako elkarrizketa izango da. Hala ere, aipatzen duten moduan, lortu nahi den informazioa ez da soilik gertaera garrantzitsu eta objektiboa, informazio subjektiboa ere lortu nahi da; hala nola nola iritziak, interpretazioak eta elkarrizketatuaren jarrerak.

Galderak formulatzeko moduak eragin handia izan dezake erantzunean. André Gittet-ek (1999) 6 galdera mota desberdintzen ditu, hots:

- Galdera irekiak: galdera ikertzaileak dira mintzaldia erraztera bideratuak, elkarrizketatuak arazoaren gainean duen ikuspegia eskaintzen dituztenak.
- Galdera itxiak: erantzun konkretua bilatzen dute eta honen baieztapena. Erantzuteko aukerak mugatzen ditu eta oinarritzko informazio lortzeko balio dute.

- Aukera anitzeko galderak: gai baten inguruko hausnarketa dakarte, hipotesiak konprobatzeko balio dute.
- Galdera zuzenak: erantzun zuzena eskatzen dute, elkarrizketatuarentzat jarrera determinatu bat hartzea suposatzen duena.
- Zeharkako galderak: erantzun askeago bat ahalbidetzen dute, galderaren helburua ongi hautematen ez delarik. Ez dute inplikazio handirik bilatzen.
- Galdera proiektiboak: fikziozko egoeretan kokatzen gaituzte. Usteak, sentimenduak... aztertzea bilatzen dute. Hauetan ez dago behartuta arrazoitzera, desioen edo motibazio sakonen mailara hel daitezke. Halaber, mota honetako informazioa lortzea konplexua da eta analizatzeko makala.

Lortu nahi dudan informazioa zabala denez, gehienbat galdera irekiak, itxiak eta zuzenak izango dira nagusi, hauen bidez lortuko baitut jarrera bat hartzea, bai bere uste eta sentimenduetan arakatzea ere, oinarritzko informazioa lortzeaz gain. Galdetegia lehenengo eranskinean aurkitzen da (Eranskina: Arantxa Ugartetxeari elkarrizketa)

- Testuingurua

Batzuen aburuz, Freire Brasilgo testuinguruari eta bizi zuen momentu historikoari lotuegi dago. Beste askok, aldiz, duen berebiziko indarra defendatzen dute bere lanaren unibertsaltasuna agerian utzi zuelarik, hasieran metodoa Brasilen aplikatu, baina gero, “Txilen, Kolonbian, Mexikon, Estatu Batuetan, Europan, Afrikan Asian, planeta osoan” (Napoleon, 2007:57)². Horrez gain, Freire irakasle multikulturaltzat har dezakegu, mundu osoa bere klaseko gela hartzen duelarik, nahiz eta bere emozioak, hizkuntza eta pentsamenduaren unibertsoa Brasilera hertsiki lotua dagoen.

Freirek proposatzen duen hezkuntza ikuspegia, egunez egun indartsuagoa den marjinazio sozialaren aurka mobilizatzen duen bakarra da. Neoliberalismoak murgildu gaituen esplotazio eta marjinazio egoera ikaragarriak, “hezkuntza sendo, solidario, konprometitu, erreflexibo, autokritiko, transformatzaile eta askatzaile” (Castellanos)³ baten beharra dakar.

“Menpeko munduko” herrialde guztiek momentuan bizi duten egoera sozial, politiko eta ekonomikoak, autore batzuen ideia edo pentsamenduetara eramaten gaituzte, “Paulo Freireren antzera, indarra ipini dutenak kapitalismoa agertu zenetik

² *Dialogos con Freire para una pedagogía universitaria* liburuan ataza bat garatzen du Jose Napoleonek

³ *El pensamiento de Paulo Freire: sus contribuciones para la educación* liburuan Castellanos-ek M.L. Iovanovich-ek egindako ikerketan parte hartzen du, ekarpenak eginez (292. or)

gaur egun arte herriek jasaten duten opresio modu guztien salaketan, bai gizakiaren askatasun aukeraren berri ematean” (Iovanovich, 2003)

2. METODOLOGIA

Lana burutzeko hurrengo faseak igaro ditut:

Hasierako fasea

- Lehen urratsa, GALaren arautegi orokorra eta espezifikora jo, lanaren formatua eta ebaluaketa irizpideak ezagutzeko.
- Jarraian, GALa garatzeko lagungarri dauden hainbat liburu kontsultatu ditut, lanaren atal desberdinen garapena egiteko orientabideak lortzeko.
- Gaiaren ildo nagusia ezagututa, bilatze tresna desberdinen bitartez, nola interneteko bilatzailea eta EHUko katalogoa, gaiaren inguruko informazioa biltzera ekin diot. Horretarako: batetik, Freirek idatzitako liburu guztiak zerrendatu, hauen laburpena irakurri eta planteatutako arazoarekin bat datozenak aukeratu ditut. Bestalde, Arantxa Ugartetxearekin kontaktatzeko aukerari esker, hark proposatutako irakurgaiak ere kontuan izan ditut.
- Lanak planteatzen zizkidan galderak definitu eta horietatik abiatuz helburuak zehaztu ditut.

Diseinua eta plangintza

- Lortutako irakurgai guztiak ebaluatu eta hautaketa selektiboago bat egin dut. Freireren inguruan egindako lanak izan dira nagusi.
- Irakurketan zehar azpimarratzea da teknika erabiliena, ondoan hitz gakoa idazten dudalarik. Hauek bide emango diote ideia aipagarrienak modu egituratuan azaltzeari. Irakurri bitartean irakurgai berri aproposak agertzen joan dira.
- Arantxa Ugartetxeari elkarrizketa bat prestatu (Eranskina: Arantxa Ugartetxeari elkarrizketa), burutu eta honetan lortutako informazioa gorputzean plasmatu dut.

Garapen fasea:

- Behin informazioa esku artean, ideia guzti horiekin testu propioa idatzi dut, autoreei erreferentzia eginez eta aipu testualak txertatuz.

3. LANAREN GARAPENA

3.1 Egoera

“Menperatuen kultura dakarren gizartean bizi gara” (Nuñez, C., 2007:19). Gure kulturaren, bai inguruko herri gehienetakoetan, globalizazioaren elementuak gero eta nabariagoak dira. Melendrok (2008:4) azaltzen gaituenaren arabera, herritarrei, merkantziei, telebista programei, internet bidez zabaltzen den informazioari... herrialdeen arteko mugak zabaltzea kulturen nahasketa ekarri du. Jasotzen dugun informazio guzti hori (ikusgai ditugun mezu esplizitu eta inplizitu zenbatezinak), gure ikuspuntuetan eragina dute, gizakiaren eta munduaren ikuskera moldatzen doazenak. Honekin baloreen krisia datorkigu, herriek botere hegemonikoaren baloreak barneratzen doazelarik. Barneratze hau kontzientziaren manipulazioaren bidez lortzen da, mundu guztiaren kontrola, bai gure kulturen deuseztatzea lortu nahian globalizazioak darabilen estrategia, “izatea” galaraziz.

Ideologia fatalista barneratzen dugu, hau gu paralizatzen gaituelarik: horrela bizi izan dugu, horrela bizi eta hil behar dugu. Ondorioz, “askok onartu egiten dute modu akritiko eta normal batean merkatuaren etikaren hegemonia, egun gizakia pobretzen duena, gure planeta suntsitu eta bere krimenak eta gerrak justifikatu ere” (Nuñez, C., 2007: 1). Gertakari hauek jada ez gaituzte hunkitzen, normala bihurtu da gezurra, lapurreta, giza eskubideen bortxaketa, ingurumenaren arpilatzea... gure inkontzientzian finkatzea.

Etika hegemoniko honen ondorioz, “gure aitorten eta desirekin kontraesanak dituzten jarrerak eta rolak gure gain hartzen ditugu” (Nuñez, C., 2007: 5). Momentu honetako krisiak esaterako, agerian utzi du herritarren gehiengoak bizi duen menpekotasun egoera. Haiengan sumatzen da auto-estimua baxua, muturreko dependentzia eta inpotentzia, konponbide probidentzialen itzaropena... Begi-bistan geratzen da kontzientzia magiko eta era berean inuzentearen hedapena, eta praktikoki existitzen ez den kontzientzia kritiko eta askatzailea.

3.2 Hezkuntza ez neutrala

“Instituzio eskolarra neutraltasun ideologiko baten bitartez eskudatzen da” (Torres, 1999:14)⁴, hau bizi garen kapitalismoan mito garrantzitsuenetariko bat delarik. Izan ere, “hezkuntza praktika guztien atzetik, pertsonaren eta munduaren ideala dago” (Freire, 1999:89)⁵. Freirek oso argi uzten du ideia hau esaten duenean:

Bai hezkuntza prozesuan, bai ekintza politikoetan, koska garrantzitsuenetariko bat da jakitea norena eta zerena eta hortaz noren alde eta noren kontra egiten dugun hezkuntza eta noren alde eta zeren alde, eta hortaz, noren aurka eta zeren aurka garatzen dugu ekintza politikoa. Zenbat eta argiago izan praktikaren bitartez, orduan eta gehiago konturatzen gara banaezintasunaz: politika eta hezkuntzarena. Orduan, ulertzen dugu erraz ez dela posible hezkuntzan pentsatzea boterean pentsatu gabe (Freire, *Importancia del acto de leer*)⁶

Torres-ek (1999:14)⁷, gobernuek hezkuntzarekiko duten benetako asmoa argitzen digu. Gobernuek hezkuntzaren bitartez, gizarte aurrerapena, guztientzako hezkuntza aukera... lortzeko bezalako promesak egiten dituzte. Promesa zahar hauek, aldiz, bidean ahazten dira, instituzio eskolarraren benetako helburuak horietatik oso urrun aurkitzen direlarik. Bizi garen kapitalismoaren barruan, “governuen mugimendu guztiak ez daude bakarrik euren onura ekonomikoak areagotzera bideratuak, baizik eta menperatze kapitalista iraun dezan baldintza politikoak ezartzera” (Michea, 2002:21)⁸.

Eskola estatalak –publikotzat hartuak-, beraz, pertsonen interesak defendatu ordez, estatuarenak eta kapitalismoarenak defendatzen ditu. Kontuan hartzekoa da, “derrigorrezko eskolatze prozesuak XIX. mende erdian eta XX. mende hasieran hasi izana, eskolak ume langileak burgesiaren interesen arabera hezteko erreminta direlarik, beren maila sozialetik urrunduz” (Varelak eta Alvarez-Uriak ikertutako prozesua (1991)⁹. Hezkuntza zapaltzaileek duten helburua hots, “aukeratutako arbitrariotasun kulturala erreproduzitzea” (Andrés, M, 2013:89), hau da, zapalduen pentsaera transformatzea, agerian uzten da.

⁴ *Infancia y control social: desmontando mitos sobre la institución escolar*-n aipatua (88.or)

⁵ *Paulo Freire y la psicopedagogía de la liberación*-en aipatu (680. or)

⁶ *Una vida de lucha, compromiso y esperanza*- aipatua (49. or)

⁷ *Infancia y control social: desmontando mitos sobre la institución escolar*-n aipatua (85. or)

⁸ *Infancia y control social: desmontando mitos sobre la institución escolar*-n aipatua (88. or)

⁹ *Infancia y control social: desmontando mitos sobre la institución escolar*-n aipatua (87. or)

Maldonadok¹⁰ botere hegemonikoaren eskuetan, hurrengo hezkuntza helburuak zehazten ditu:

- “besteentzako” izakiak eraiki – alienatuak – eta ez “norberarentzako” dena – eskubideen eta betebeharren subjektua-.
- Elkarrizketa harremana ukatu, bai interpersonalai bai ingurunearekin.
- Izakiaren eta munduaren artean existitzen ez den dikotomia iradoki, mundua “bukatutza” hartuz edo tinkotutako eta ezin eraldatu ahal den legea, non gizakia “ikuslea” edo patu baten “biktima” den.

Herriak zapalduak daudelarik, Freirek hezkuntza herria objektu edo gauza moduan erabilia izateari uzteko arma moduan ikusten du. “Ekintza kultural moduan ulertuta, izaera humanista eta dialogikoa izan behar du ezinbestez” (Freire, 1971:42)¹¹

Hezkuntzak gizakia lagundu behar du bere egunerokotasunetik hasita, hau da, “munduan kokatzen lagundu, berarekin konprometitu bere egoeraren hausnarketaren bidez, egunerokotasuneko ekintzak aztertuz eta kritikatu, modu honetan, askatasunez aukeratzeko bere harremana munduarekiko, besteekiko eta norberarekiko”, Rodriguez-ek *Educación y educadores en el contexto de la globalización* artikuluan azaltzen digun moduan. Ez datza ikasleari datu zehatzak ematean, baizik eta datuak “humanizatzean” eta bizitzan zehar lan intelektualerako benetako tresnak eskaintzean.

Gizartearen beharretatik abiatuz, Freirek hezkuntzak izan beharreko helburuak zehazten ditu. Hauek Yuren-ek (2000:48)¹² oso modu adierazkorrean laburbiltzen ditu:

- Ikasleak bere nortasuna eta bere bizi proiektua subjektu libre eta arduratsu moduan eraikitzeke baldintza didaktiko kurrikularrak sortu, hots, historia eraikitzeke pertsona gaitasuna garatu euren patuen egile diren agente kritikoak bihurtzeko.
- Ikaslearen kontzientzia eta auto-kontzientzia maila igotzeari mesede egin, harridura, jakin-mina, deskubritzeko desira, interpretatzeko, azaltzeko eta kritikatzeko gaitasuna sustatu. “Kontzientzia ez da hausnarketa, asmoa bera baizik” (Vidales, 2005:191) eta ekintza transformatzaileak sortzera eramango duena ikaslea.

¹⁰ *Diálogos con Freire para una pedagogía universitaria*-n Maldonadok idatzitako kapitutlun (99. or)

¹¹ *Paulo Freire y la psicopedagogía de la liberación*-en aipatua (680. or).

¹² *Educación y educadores en el contexto de la globalización*- en aipatua (7. or)

- Ikasleak komunikatiboki eta kooperatiboki elkarri eragiteko gaitasunak garatzean lagundu, taldeko beharrak asetu eta harreman afektiboak garatzeko.
- Kulturaren produkzioan, berreraiketan eta transformazioan ikaslearen parte-hartze sortzailea bultzatu.
- Ikasle bakoitza bere nortasuna eta komunitatearen nortasuna modu kontzientean eraikitzeke lagundu.
- Itxaropena berreraiki “historiaren ulermenaren bidez aukera moduan aurkeztuz, eta ez determinismo bezala” (Freire, 1994)¹³

3.3 Metodologia

Micheak¹⁴ (2002) “ezjakintasunaren eskola” deitzen dio gaur egungoari, eskola instituzioak ezjakintasuna zabaltzen duelarik inteligentzia kritikoa suntsitzeko saiakera moduan. Instituzio eskolarra oztopoen lasterketa bihurtzen da, non emaitza den garrantzitsuena eta ez prozesua. Modu honetan, “haurrek eta familiek lortutako emaitzengatik soilik arduratzen dira eta ez benetan ikasten denagatik” (Illich, 2006:271)¹⁵.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aspektu tekniko eta mekanikoen segidan oinarritzen da, non gaitasun kritikoa nabarmena den, Freirek “Educación Bancaria” izendatzen duena. Ordenari zerbitzatuz, “gaur egungo intelektualek hezkuntza praktikaren asmo argia ezeztatuz, hezkuntza eduki “nahikoen” transferentzia soilera murrizten da” (Freire, 1997:31). Freirek hezkuntzaren helburuak edukien bidez lortzeaz ez ezik, aurkezteko moduen bidez ere lortzen direla aitortzen du, geroago “ezkutuko curriculum” izena hartuko duena. Izan ere, hezkuntza edukiak eta metodologia arbitrariotasun kulturalaren menpe daude, erreproduktoria bideraturik.

¹³ *Una vida de lucha, compromiso y esperanza* (42. or)

¹⁴ *Infancia y control social: desmontando mitos sobre la institución escolar*-n aipatua (88. or)

¹⁵ *Infancia y control social: desmontando mitos sobre la institución escolar*-n aipatua (88. or)

EHko 500 irakaslek 1993an erantzun zuten galdetegi¹⁶ baten arabera, planteamendu didaktikoen ezaugarri kontserbatzaileenak ebaluazioan, guraso eta ikasleen parte-hartze ukatuan, testuliburuarenganako bai prozesu didaktiko tradizionalenganako sinesmenean daude. Irakaslea autoritarioa da, kapitalismoaren botere-harremanak bultzatuz, eta ikaslearen isiltasuna da nagusi.

Izaki askea lortu nahian, Freirek problematizazioaren pedagogia aurkezten du. Honen arabera, “errealitatea ideologikoki adierazten duten kodifikazioen eta diskurtso anitzten analisi kritikoa egin behar da, nortasun kulturala ezagutzera heltzeko” (Cordeu)¹⁷, azken honen bilaketa askatasuna lortzeko borroka bera delarik. Programazioa, ebaluazioa eta praktiken birprogramazioa beraz, testuingurura eta beharretara egokitu beharko dira, kontzientzia-hartze hori errazteko ikaslea bere testuinguruan integratu behar delako.

Gizakiari bere egoera gainditu beharreko arazo moduan aurkeztu behar zaio, errealitatearen pertzepzio magiko edo inozoa gainditzeko asmoarekin. Zailtasunak beraz, aukera bihurtuko ditu.

Mundua ezagutzaren benetako iturria delarik, gelatik atera beharra sumatzen du, nahiz eta gela bera munduko parte izan. Gure errealitate hurbileko egoera partikular eta lokaletatik unibertsalera jotzeko bidea proposatzen du Freirek. Izan ere, berak dio: “Zenbat eta errotuago egon nire herrian, orduan eta aukera gehiago ditut zabaltzeko, munduko hiritar sentitzeko. Inor ez da lokala egiten unibertsaletik abiatuta. Bide existentziala alderantzizkoa da” (Freire, 1995)¹⁸

Bestetik, hezkuntza dialogikoa izan behar dela aitortzen du, “elkarrizketaren bidez gizabanakoa berezko historiaren sortzaile eta subjektu bihurtzen delako” (Freire, 1979)¹⁹

Azkenik, jakin-minean heztearen garrantzia azpimarratzen du eta hau estimulatzen eta indartzen duen bakarra galderan oinarritutako hezkuntza da. Interesen eta beharren zirkuluetatik abiatu beharra dago beraz, behar ez sentituak ohartaraziz bidean zehar. Bakoitzaren errealitatetik, zuzenezko harreman sozialetatik eta gizabanako bakoitzaren egoeratik abiatuta, lehenbizi esperimendatutako dinamika

¹⁶ *El profesorado de Euskadi: estudio de sus planteamientos didácticos-en* (439.or)

¹⁷ *El pensamiento de Paulo Freire: sus contribuciones para la educación* liburuan Cordeu-k ekarpenak egiten ditu (263. or)

¹⁸ *Una vida de lucha, compromiso y esperanza-n* aipatua (46.or)

¹⁹ *Una vida de lucha, compromiso y esperanza-n* aipatua (48.or)

integratzen da; ondoren ulertuta, oinarrizko hezkuntza elementua bihurtuko dena. Bide honek sentikortasuna sorrarazten laguntzen du eta sentimendua ez da ahazten.

Jarraian, ikaslea eta irakaslearen papera aztertuko da, hauek ulertzeko modua metodologiarekin lotura hertsia baitu, helburua lortzeko bitartekariak direlarik.

❖ Ikaslea

Ikaslearen egoerari dagokionez, “umeak beren testuinguru kultural eta historikoaren arabera eraikitzen dira, beraz, eraikuntza sozial baten emaitza dira. Haurtzaro asko eta oso desberdinak existitzen dira munduan” (Gaitan:2006)²⁰. Hala ere, guztiek komunean ezaugarri bera dute: “betidanik izan dira helduengandik definituak”(Andres Candelas, 2013:85).

Estatuaren eta kapitalaren gidaritzapean, “eskola haurtzaroaren kontrol-sozial-zigortzailerara bideratuta dago, bai erreproduzio sozialera eta desberdintasunen justifikaziora” (Andres Candelas, 2013:92). Sistema kapitalistaren iltze garrantzitsuak “ikasten” ditugu bertan, nola obedientzia, autoritate eztabaidea zinari men egitea, individualismoa, lehiakortasuna... Spring eta Ferrer-ek (Ovejero, 1997:676-n aipatua) etorkizuneko langileengan txertatu nahi dituzten jarrerak aztertzen dituzte: asperraldia jasaten duten langileak, monotonoak, zintzo antolatuak, puntualak... Pasibotasuna ere ezaugarri ezinbestekoa da, zenbat eta gehiago inposatu, orduan eta modu inuzenteagoan egokituko baitira mundura, transformatu orde. Ikus dezakegunez, baloreak etikoak izateari utzi eta ekonomiko bihurtzen dira.

Hezkuntza-praktiketan irakaslea edo liburua da guztia dakiena, umeak ezjakintzat hartzen dituelarik. “Liburu zuriak” bailiran bete behar dira, “zapaltzaileek proposak ikusten dituzten kulturaz eta baloreez, hiritar bihurtzen direnean ezarritako orden sozialaren iraupena berma dezaten, hots, “statu quo”-aren iraupena” (Andres Candelas, 2013:86). Bestalde, “azterketan zentratutako praktika da, non hurrek euren patuaren arduradun bakarrak diren”. (Torres:1999:14)²¹

Freirek, izaki menperatu honen kontra, izaki askea, kontzientea, konprometitua, arduratsua, borrokalaria... lortu nahi du, gizakiaren alde egiten duena. Horregatik, ikasketaren subjektu bihurtuko du, bere ezagutzetatik eta interesetatik abiatuz, bere bizipenetatik eta errealitatetik, eta ezagutza eraiki egingo dute berdinen arteko elkarrizketaren bitartez.

²⁰ *Infancia y control social: desmontando mitos sobre la institución escolar*-n aipatua (85. or)

²¹ *Infancia y control social: desmontando mitos sobre la institución escolar*-n aipatua (85.or)

❖ Hezitzailea

Hezkuntza hegemonikoaren alde lan egiten duten hezitzaileak autoritarioak izan ohi dira eta edukien narratzaile soilak. Estatuak zehaztutako curriculuma betetzeaz arduratzen den testu-liburuaren erabilera itsuan jausten dira, erosotasuna eskaintzen duelarik. Bestalde, irakasle hauen kezkarik handiena programazioa betetzea da, edukien kantitateari kalitateari baino garrantzi askoz handiagoa emanez. Liburuak eskaintzen duen ikuspegi bakarra lantzen dute eta “eurekin dakarte globalizazioa onartzeko modua, sufritzeko edo disfrutatzeke moduak” (Andres Candelas, 2013:4).

Hezitzaileen ikuspegi honen aurrean, Freirek hezkuntzaren ikuspegi soziopolitikoaren konprometitua dagoen hezitzailea defendatzen du, hezkuntzaren helburu soziala argi duena. Freirek hezitzaile orok izan beharreko jarrera profesionala definitzen du. Modu sintetizatuan batean esan genezake bere betebeharrak honakoak direla:

- Ikasleen arazoak eta interesak kapitalizatu, hortik eduki curricularretara abiatzeko.
- Munduan kokatzen lagundu, berarekin konprometitu bere egoeraren hausnarketaren bidez, aztertuz eta kritikatzuz bere egunerokotasuneko ekintzak eta modu honetan askatasunez aukeratzeko bere harremana munduarekiko, besteekiko eta norberarekiko. (E. Morin, 1999:42)²²
- Hezkuntza jarduerarekin konpromisoa izatea, duen izaera soziala aitortuz.
- Formakuntza etengabea: metodoak, teknikak, irakaslearen aurrean erabiltzeko prozesuak...ezagutu. Formazio politiko eta soziala, bere hitz propioaren bilatzaile bihurtu eta besteei berea aurkitzen laguntzeko. Norbere burua gainditu
- Objektuaren problematizazioa errazten duten bitartekoak asmatu.
- Koherentzia lortu diskurtsoaren eta praktikaren artean, hau lortuz prozesu osoan.
- Zuzendari eta ikasleekin harreman horizontalak sortu.
- Norberaren autokritika egin eta besteenak bultzatu.
- Auto-estimua eta itxaropena estimulatu.
- Harreman solidarioetan lan egin.
- Kontzientzia magikoarekin apurtu.
- Hurbiltasuna eta komunikazio dialogikoa, autoritarismoa gaindituz.
- Munduan dauden ikuspegi desberdinak erakutsi eta ez soilik berea.

²² *Educación y educadores en el contexto de la globalización*-n aipatua (6. or)

3.4 Freireren ikuspegi pedagogikoa praktikan

Jarraian, Freireren ikuspegi pedagogikoa praktikara eramateko adibide batzuk ikusiko ditugu.

- *Freirek proposatutako metodoa*

Metodo izena hartu duen arren, zehaztu beharra dago Freirek ez zuela metodo moduan aurkeztu, baizik eta ikuspegi pedagogikoa praktikara eramateko modu bat, sor ditzakegun beste guztien artean. Hiru fase desberdintzen dira bere proposamenean, *Porqué una palabra generadora* testuan oinarrituta:

1. Ikerketa etapa: Unibertsoaren errekonozimendua

Elkarrizketa informalen bitartez herriak bizi duen testuingurua ikertzen da, hizkera arrunta eta arazoak identifikatzeko helburuarekin. Paisai fisikoaren, gizartearen, erlijioaren, lan moten... errekonozimendua egiten da, kulturaren dekodifikazioa lortu nahian. Ikertzaile taldea bildu eta gertaerak, hitzak, baieztapenak... justifikatzen dituzte. Prozesu osoan zehar herriaren ordezkariak parte-hartuko dute beren ikuspuntuak emateko.

2. Programazio etapa

Ikertzaile-taldeak hitz guztietatik esanahi existentzial gehien eta jendearentzat esanguratsuenak direnak aukeratzen dituzte. Hitzen aberasgarritasun silabikoa, zailtasun fonetikoak, edukiaren erabilera praktikoa... kontuan hartzen da eta errelitate zehatzekin (sozial, politiko, kultural) konpromiso gehien duena bilatu behar da.

Hitz sortzaileak zientzia desberdinetan banatu egiten dira: soziologia, antropologia, psikologia... nahiz eta honek ez duen esan nahi programa diziplina zurrunetan egituratzen denik. Espezialistek bere gaiaren laburpena egiten dute: ikasketa unitateak, sekuentziak, gaiaren ikuspegi murriztua. Iradokizunak ere egiten dituzte testuetan, irakasleek kultura zirkuluetan eztabaida ditzaten.

Material didaktikoa sortzen da: bisuala (grafikoa, irudia), sentikorra (psikodrama, soziodrama, kortometraia, audiobisualak), entzuteko (kontakizuna, musika, poesia herrikoia, irakurgaiak, hizketaldiak)

3. Etapa pedagogikoa: Alfabetizazio prozesua

Etapa hau ikasleekin egiten den lanari dagokio eta jarduerak bi multzotan sailka ditzakegu:

1) Motibazio sesioa: Hitz sortzaile bihurtzeko lehenbizi taldearekin dezifratu behar da eta hausnartu sortzen dituen gaien inguruan, euren interesak azaleratzeko. Hau lau pausu sekuentziaturen bidez egin dezakegu:

1.- Irudiaren eta hitzaren aurkezpena: gaur egungo irudia aurkezten da, taldeko inguru pertsonala eta soziala islatzen duena. Irudiak hitzik gabe aurkezten dira, eztabaida sortzeko herriak bizi dituen egoeren ingurukoa izan behar du. Elementu kodifikatuak izan behar ditu taldeek deskodifikatzeko. Eszenatoki lokalak izan daitezke, herri eta nazio arazoak adierazten dituztenak. Zenbat eta irudiaren irakurketa gehiago egin, hobeto. Irudiaren deskribapena egiten da lehenbizi, eta ondoren, esanahien irakurketa: “Zer ikusten da argazkian?” Irudiarekin jarduera anitzak egin ditzakegu: irudiari izenburua jarri, irudiaren inpresioa islatzeko brain-storming-a (iradokitzen dituen esaldiak, keinuak, zaratak...) sekuentzia narratiboak sortu (argazkia egin baino lehenago eta geroago gertatutakoa kontatu, argazkiaren ezker-eskuinaldean edo atzealde-aurrealdean dagoena pentsatu...), talde bati erakutsi irudia beste taldeari deskribatzeko eta azken hau irudia marrazten saiatu, edo irudi desberdinen artean aproposena aukeratu, edo irudi berriren bat proposa dezake. Ikasleak irudiko egoeran barnera daitezke ere pertsonaien roll-ak garatuz.

2.- Jarduera motibatzaile zehatza: hitzaren esanahiak eta egindako hausnarketetan sakontzeko jarduera izan behar du, errealitatearen analisia egiteko gaitasuna garatuz. Helburua eta egoeraren arabera, hezitzaileak proposamen desberdinetatik aukeratu beharko du: talde-lanak, irudia eta hitza lotzea, galdetegiak, eztabaida gidatua, iritzi pertsonala esaldien gainean, irrati, prentsa eta telebistaren erabilera, aldizkari, irrati edo telebista programak sortzea...

3.- Testu motibatzaileen lanketa: mota guztietako testuak landu behar dira: informatiboak (gai orokor, gertakarien... inguruan informatzeko), literarioak (gozatzeko, pertsonalki adierazteko...), etab. Irakurketak informazioak iradoki behar ditu irakurketa lantzen den heinean. Testuaren bidez idazketa lantzeko laburpena, galderak idaztea, galderak erantzutea... proposa daiteke.

4.- Azkenik, esaldi adierazgarria eraiki daiteke, hitz gutxitan ondorioztatzen ikasteko. Hitz sortzailea erabiltzen saiatu behar dira. Taldearen ondorioa laburbiltzen duen ideia izan behar du, sentimendu orokorra biltzen duena.

2) Garapen jarduerak: sesio bakoitza hitz eta grafikoen inguruan.


Hitzaren deskonposizioa, bere esanahia eta egoera (hitza eta honek adierazten duen errealitatea) eztabaidatzen da. Ondoren, deskonposizio silabikoa eta hitzen sorkuntza

lantzen da. Horretarako, hitza, irudia, eta hitzaren deskonposizio silabikoa agertzen den fitxa sortu behar da. Konbinazio fonetikoekin hitz berriak sortu behar dira. Eginbehar honetan maiuskula, minuskula, azentuazio, puntuazio-ikurren nozioak sartzen goaz. Irakurtzen eta idazten diren hitzen ulermena egiaztatzeko hitz guztiak idatz ditzakete eta zentzua dutenak bakarrik borobildu, esaterako.

Ondoren, hitza osatzen duten silaba bakoitzaren familia aurkezten da beste fitxa batean. Irakasleak nahi duen ariketa proposa dezake: silaba testuetako hitzetan aurkitu, hitz zerrenda batean borobildu silaba hori dutenak, hitzak irakurri eta idatzi, hitzak eta irudiak erlazionatu, hitz berriak sortu silabekin, diktaketak, falta den hitz idatzi esaldian, letra sopak, esaldiak sortu...

- *Kontzientzia kritiko baterako praktika pedagogikoa*

Arantxa Ugartetxea elkarrizketatzean, hark aurkeztutako baliabidea da hurrengoa (ikus 1. irudia), Arantxak eta bere kide den Sebastianek sortutakoa, Freireren pedagogia oinarri hartuta. Praktikan jarri dute Mondragon Unibertsitatean egindako jardunaldietan, esaterako, edozein gai lantzeko baliabide oso aproposa baitugu. Eskolan ere erabil dezakegun baliabidea dugu, irakasle batzarretan, orientabide bila gaudenean, edozein lanaren garapena egiteko...



Arantxak honako proposamenak egiten dizkigu. Aukera bat, triangeluaren barnean hitz bat kokatzea dugu. Inbestigazio atalean hitz honek burura dakarzkigun hitzak idazten dira, sortze momentua da. Ondoren, tematizazioan, hitzak erabiliz esaldiak sortzen ditugu. Azkenik, problematizazioan, eztabaida abiatuko duten galderak sortzen dira eta hauen erantzuna edo irtenbidea idatziko da, behar izatekotan informazioa bilatuz iturri desberdinetan.

Beste aukera bat bide berria hartzea dugu, lehen pausoa problematizazioan galdera bat egitea izango delarik. Tematizazioan testu bat lantzen da eta inbestigazioan testutik hitz esanguratsuenak ateratzen dira. Horrela, lehenbizi egindako galderari erantzungo zaio, baina oraingoan, zure hitza erabilita.

Triangeluaren edozein ataletik has gaitezke gure helburuaren arabera. Metodo honen bitartez, gela batean eta bestean lortuko diren emaitzak desberdinak izango dira, euren ezagutzatik abiatuko baikara. Horregatik, oso baliabide interesgarria eta aberasgarria iruditu zait, Freireren pedagogia ikuskera barne hartzen duena eta batez ere, oso erabilgarria eremu askotan.

- *Irakasleen formazio proiektua*

Torresek (1997a) Freireri egindako galdetegian, Freirek irakasleak formatzeko proposamena azaltzen du. Honen arabera, 2-3 pertsona, ezagutza teoriko eta zientifiko nabarikoak, 25-30 irakasleren topaketa koordinatzen dute. Topaketan, irakasleek euren praktikak deskribatu eta aurkitzen dituzten oztopoak elkarbanatzen dituzte. Orduan, koordinatzaileak, arazo hori ikertu duen azalpen teorikoa ematen du, arazoa ulertzeko eta honi aurre egiteko. Horrela Vigotsky ikas dezakegu; ez, aldiz, berari buruzko konferentzien bidez.

Bestalde, teknologiaz baliatuta, bideo eztabaidagarri bat ere sortzen da, non irakasleen praktika bat agertzen den. Horrela, eskola testuingurua erakusten zaie magisteritza ikasleei, nola jolasten eta bizitzen duten umeei, nola irakatsi irakasleak, zer oztopo edo arazori aurre egin behar... Irakasleek eszenatoki hauek analizatu eta irakaslearen jarrera pedagogiko-politikoa eztabaidatu egiten dute. Azkenik, irakaslearekin eztabaidatu egiten dira bideoko irakaslearen errakuntzen eta asmaketen teoria.

- *Hezkuntza curriculum*

Curriculum landu beharreko edukien zerrendapena delarik, ezkutuzko arbitrariotasun batean eskudatzen da, aukeratzen duen pertsonaren arabera aldatu egiten baita. Pedagogia honetan herri kulturako baloreak indartu nahi ditugularik, kultura hegemonikorekin bat ez datozenak, Nayive, L. & Anibal, R.-ek (2005) curriculum herrikoi baten sorkuntza aztertzen dute. Curriculum ireki baten prestaketa hezkuntzako partaide guztien artean sortua izatea suposatzen du, hezkuntzaren dialogikotasunarekin ez apurtzeko. Hortaz eduki curricularren eraketan ikasle eta irakasleen parte-hartzea ezinbestekoa da. Programa honek kulturako elementu guztiak barne hartu beharko ditu, harreman sozialetan parte hartzearen bidez, jendearen bizitzan eta kontzientzian eragina izateko. Gaiak berezko errealitateetik atera behar dira eta sortzaileak izan; hots, jardunerako desafioak eta beste gai batzuetarako jotzeko aukera ematen dutenak”.

- *SUTEBA*²³ (Sindicato Unificado de Trabajadores de la Educación de Provincia)

irakurgaiaren sindikatu honen inguruan hitz egiten da. Oinarri bezala Freireren individualismoaren gainditze proposamena hartuta, itxurazko errealitatearen inguruan hausnarketa egiten da bertan. Honek bide ematen dio eskolan ekintza militanteak garatzeari eta gizarteak proiektu neoliberalari modu egokiago batean aurre egiteari.

- *Institución Libre de enseñanza*²⁴

Hezkuntza zentro pribatua da eta bere ekintza nagusienak hiru dira. Batetik, Aldizkariaren argitarapena, ideia eta kultura aldizkari moduan, hezkuntza arazoen trataera nagusituz. Bestetik, liburutegiaren eta dokutekaren berreraiketa, 1868tik 1936ra Espainian gertatutakoaren inguruko testigantzak batzen diren. Azkenik, kulturaren, hezkuntzaren eta gizartearen inguruko hausnarketa zentroa bilakatzeko ekintzen antolaketa, nola, hezitzaileentzako formazio programak, kurtsuak, mintegiak, konferentziak, aurkezpenak, proiektzioak, kultura eta natura gela, udaleku eskolarrak...

²³ *El pensamiento de Paulo Freire: sus contribuciones para la educación*-n aipatua (298. or), Alurralde egindako ekarpena

²⁴ *Infancia y control social: desmontando mitos sobre la institución escolar* (2013)-n aipatua (87.or) eta internet bidez lortutako informazioa

- “*Argentinako industria*” proiektua²⁵

Ikasleek soziala zenarekiko interesa aurkezten zutelarik, galderak zituen irakurketa landu ostean, ingurunekeo industriaren inguruan hasi ziren hitz egin: Quilmes-eko garagardotegia. Hango langile bati elkarrizketa informala egin zitzaion eta honek garagardoa egiteko prozesua eta egin beharreko lan guztiak azaldu zituen. Horrez gain, lan-baldintzak eta krisia garai honetan izan duen inpaktua ere analizatu ziren.

- Beste batzuk:

- Baratze komunitarioak eta eskolarrak²⁶
- Topaketa pedagogikoak
- “Memoriaren berreskuratzeko” proiektua²⁷: bizi dugun egoera ikertu eta honetara zelan heldu garen ondorioztatzeko proiektua da.
- “Lanerako bidean” proiektua: trukatzeko gaiaren ingurukoa. Lan legeak ikertu eta eztabaidatu egiten dira, erosi eta trukatzeko arteko desberdintasuna... trukaketaren produkzioan eta parte-hartzean ikaslea gaituz.
- Okintzan formatuz²⁸: Lokatzekeo labea erabiliz ogia egiten da, geroago zentro eta jantoki komunitarioetara bidaltzen dena.
- Hauteskunde simulatuak: eskola pribatuetan Errepublikako presidente edo gobernatzaile izateko hauteskunde simulazioak egin dituzte. Prozesu honetan ikasleak borroka politikoan, partiduen posizioetan eta exijentzia etikoetan barneratzen dira. (Freire, 1991:99)
- Gizarte mugimendu batzuk lotura hertsia dute Herriko Hezkuntzaren metodologiarekin, hala nola:
 - Movimiento de Trabajadores Desocupados de La Matanza
 - Movimientos de Campesinos Poraijú de Saenz Peña, Chaco probintzian
- Berrikuntza eta formazio planak egin dira, kongresuak ardatz izanik: Hezkuntza kritikoa eta 1. Kongresua Nagusien hezkuntzan (Donostia)

²⁵ *El pensamiento de Paulo Freire: sus contribuciones para la educación*-n aipatua (267. or), Toledo Vargas-ek egindako ekarpena

²⁶ *El pensamiento de Paulo Freire: sus contribuciones para la educación*-n Zeberio-k egindako ekarpena, 264. or

²⁷ *El pensamiento de Paulo Freire: sus contribuciones para la educación*-n Cordoba I.-k egindako ekarpena, 268.or

²⁸ *El pensamiento de Paulo Freire: sus contribuciones para la educación*-n Arruiz-ek egindako ekarpena, 269. or

Zerrenda ez da hemen bukatzen, integratzailea den esperientzia oro, errealitatek abiatzen dena eta hau problematizatzen duena, ikasleari bizitza intelektualerako benetako tresnak eskainiz, zerrenda honetan koka genezake. Esperientzia hauek zabalatzean, hobetzean eta proposamen berriak aurrera eramatean dago gakoa.

4. Emaitzak eta ondorioak

Jarrera inozoa litzake menperatzaileek zapalduen injustizia sozialak modu kritikoa hautematea eragiten duen hezkuntza garatuko dutela pentsatzea, izan ere, Freirek zioen moduan, alfabetatze kontzientziatzailea edozein gobernurentzat deserosoa da.

Freireren ikuspegiak berekin dakarren oztoporik handiena, aldiz, ez dugu zertan sisteman zentratu behar, berez norberaren burua gainditu beharra baita zailtasun handiena, norberaren hitzaren bilaketa horretan pertsonalitatearen, pentsaeraren edo munduaren ulertzeak barruko eraldaketa suposatzen duelako. Errealitatea desmitifikatzeko etengabeko esfortzua beharrezkoa da, ondoren klaseetan errealitatearen analisi kritikoa bultzatu ahal izateko, hortaz, hezitzailea munduaren arazoetan murgildurik egon behar du ezinbestez.

Etika hegemonikoaren aurrean, lehenbizikoa da bere existentzia antzematea, bai sozial zein kulturalki guztiongan duen benetako eragina. Hortik abiatuta, ideologia fatalistan jaustea saihestu behar da, hots, irakasle moduan ezin dugula ezer egin hezkuntza sistema eta berarekin batera sistema bera aldatzeko. Arantxa Ugartetxeak seriotasun handiz baieztatzen zuen bezala, klase barruan hezitzailea da jaun eta jabe edozein lege edo programazioren gainetik. Bere esku dago aukera egitea: erosotasunaren bila botere hegemonikoaren alde egin ala benetan konprometitu zure lanbideak duen funtsarekin eta gizartearen alde lan egin. Borroka egin doktrinamenduaren, autoritarismoaren, konformismoaren... aurka; ezagutza kritikoa, justiziaren, auto-definitzearen... alde.

Bizi dugun prozesu kontzientziatzaile gabezia, pertsonen norbere buruarekin topatzeko aukera emateko beharra dugu, “dominazio egitura honetan bere kokapena

identifikatzera bideratuko duena, bai bere egoeraren arrazoiak argitzera, zapaltzaile zein zapaldua izan” (Parra de Marroquin, 2007:11). Ikasleak eduki anitzak eta testuinguratugabeak memorizatze eta mekanizatze ohiturari aurre eginez, etengabeko hausnarketa sustatzen duen hezkuntza garatu behar dugu eta ikasleen errealitate hurbiletik abiatzen dena. Haiekin hausnarketa aurrera eramanez, kontzientziario prozesuei bide emanez, ikaste-irakaste prozesu guztien muina izan behar duena.

Lanean aurkeztutako praktikak aurrera eramateko gonbidapena luzatzen diet hezitzaile guztiei, bai pedagogia ikuspegi honetan oinarritutako beste praktika berriak garatzeko. Etengabeko praktikaren errebisioa guztiz beharrezkoa izango da jardun honetan hobekuntzaren bidean ibiltzeko. Metodologiaren eta adierazleen proposamenak egitea oso abesgarria litzake, auto-ebaluazioa neurtzeko ordez, hobetzeko erabilera emanez.

Bestalde, zenbat eta jende gehiago parte hartu aldaketan, orduan eta aldaketa errealago, erradikalago eta koherenteagoa izango da. Ikastetxearen berezko proiektua giltza da hezkuntza prozesu koherenteena lortzeko bidea, benetako helburuekin bat eginez. Hau klaustroarengandik eztabaidatua eta onartua izan behar du, non komunitateko ezaugarri soziokulturalak kontuan hartzen diren eta auto-ebaluazio sistema bat ezartzen den errakuntzak detektatzen joan ahal izateko eta erantzun efektiboak proposatzeko. Guztiz beharrezkoa da halakorik lortzekotan, zentroko langile guztiek helburuekin bat egitea eta hauekin konpromisoa hartzea. Proiektuak curriculumaren berreraiketa eskatuko duelarik, hau ere, guztien artean eraikia izan behar du, ikasleak prozesuan ere parte hartuz.

Horrez gain, ikastetxearen ateak irekitzea eta beste zentroekin harremanetan jartzea, esperientziak eta emaitzak elkarbanatzea... guztiz aberasgarria litzateke. Horretarako, sare birtualak ditugu egun oso baliabide eraginkorra. Topaketak ere oso aproposak izan daitezke espazio irekien behar honetan, elkarrizketa, hausnarketa kritikoa eta kontsulta sustatzeko. Honekin batera komunitatea eta familia prozesuan parte hartzeko komunikazio bideak eraikitzea ere beharrezkoa ikusten da, orain arte eurentzat itxia egon diren espazioetan, hala nola, hezkuntza proiektua edo curriculumaren eraiketa.

Hezkuntzaren kalitate handiagoa lortzeko, formazio permanentea, irakasle eskoletako kurtsoren birformulazioa eta konpromisoa dira finkatu beharreko iltzeak. Hezitzaileek formazio politiko eta soziala jasotzea ere beharrezko ikusten da, euren hitza aurki dezaten eta hitzaren bilaketan laguntzaile bilakatu daitezten. Hezitzaile orok

bere buruari galdera egin beharko lioke: ikasleek mundu honetako biztanle kritikoak izaten laguntzen al nabil?; etorkizuneko bizitza politiko eta sozialerako prestatzen al dira ikasleak eskola honetan?; hezkuntza kalitatea eskaintzen al du lan egiten dudan zentroak?...

Azkenik, zehaztu nahi nuke, nahiz eta Freire batez ere nagusientzako hezkuntzaren barne eta hezkuntza ez formalean kokatu, nabarmentzekoa da bere ikuspegi pedagogikoa hezkuntza maila guztietarako guztiz aproposa eta beharrezkoa dudala, LH, DBH, Batxilergoa, unibertsitatea... Izan ere, pertsonak ez dira isiltasunean eraikitzen, hitzean baizik, lanean, akzioan, hausnarketan eta hauen hutsunea nabaria da hezkuntza etapa guztietan.

5. Erreferentzia bibliografikoak

Andres Candelas, M. (2013) *Infancia y control social: desmontando mitos sobre la institución escolar* Valladolid: Revista de pensamiento libertario, hemendik <http://estudios.cnt.es/wp-content/uploads/2013/12/Revista-Estudios-n3.pdf>

Bingham W.V & Moore B.V. (1973) *Cómo entrevistar*. Madrid: Rialpa

Ferrer V. & Carmona M. & Soria V. (2012) *El trabajo de fin de grado. Guía para estudiantes, docentes y agentes colaboradores*. Madrid: Hill Interamericana

Freire P. (1997) *A la sombra de este árbol* Barcelona: El Roure

Giroux, H. (1998) *Una vida de lucha, compromiso y esperanza* Barcelona: Cuadernos de Pedagogía, 265. alea, hemendik: <http://ebookbrowse.net/giroux-freire-una-vida-de-lucha-pdf-d523025310>

Granja, J.J. (1993) *El profesorado de Euskadi: estudio de sus planteamientos didácticos*, Vitoria-Gazteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpena Zerbitzu nagusia, hemendik: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/39/39439440.pdf>

Guittet, A. (1999) *La entrevista: técnicas y prácticas*. Bilbao: Mensajero

Iovanovich, M.L. (2003) *El pensamiento de Paulo Freire: sus contribuciones para la educación* Buenos Aires: CLACSO (*Lecciones de Paulo Freire cruzando fronteras:*

experiencias que se completan liburuko 259-324. or), hemendik:
<http://biblioteca.clacso.edu.ar/ar/libros/freire/freire.html>

Melendro, M. (2008) *La globalización de la educación* Universidad de Salamanca:
 Revista Teoría de la Educación, hemendik:
http://www.magrama.gob.es/es/ceneam/articulos-de-opinion/2008_09melendro_tcm7-141779.pdf

Nayive, L. & Anibal, R. (2005) *Perspectiva crítica de Paulo Freire y su contribución a la teoría del currículo* Venezuela: Revista Venezolana de Educación (Educere), v. 9, n. 29, 159-164. or , hemendik: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=35602903>

Núñez, C. (2007) *Vigencia del pensamiento de Paulo Freire*, hemendik: http://www.iiz-dvv.de/index.php?article_id=281&clang=3

Ovejero, A (1997) *Paulo Freire y la psicopedagogía de la liberación* Universidad de Oviedo: Psicothema, Vol. 9, nº 3, 671-688. or, hemendik:
<http://www.psicothema.com/psicothema.asp?id=136>

Parra de Marroquin, O. (2007) *Diálogos con Freire para una pedagogía univesitaria*. Bogotá: Cuadernos Pensar en Público, 4. alea

Perez Urraza, K. (2013) *Ezagutzaren hautaketa ikasmaterialetan*, in Bilbao Bilbao, M.B. & Perez Urraza, M.C. *Irakaskuntza Materialen Ikerketa OWC, UPV/EHU*

Porqué una palabra generadora hemendik:
http://catedu.es/cdagua/a_1_palabra/Metodologia_Palabra_Generadora.pdf

Rodríguez, E.G. *Educación y educadores en el contexto de la globalización* México: Revista iberoamericana de Educación, hemendik:
<http://www.rieoei.org/deloslectores/910Rodriguez.PDF>

Torres, R.M. (1997a) *Yo quisiera morir ejando un mensaje de lucha, entrevista con paulo Freire*. Buenos Airez, Novedades Educativas, 79. alea, hemendik:
<http://periodicos.ufpel.edu.br/ojs2/index.php/caduc/article/viewFile/1779/1656>

Torres, R. M. (1997b) *Los múltiples Paulo Freires*. Buenos Aires: Novedades Educativas, 79. alea, hemendik:
<http://www.udg.edu/Portals/22/LOS%20MULTIPLES%20PAULO%20FREIRES.pdf>

Vidales, I. (2005) *Paulo Freire y la pedagogía del oprimido* México: Investigación educativa, hemendik: <http://www.caeip.org/docs/investigacion-pedagogica/veinte.pdf>

Eranskina: Arantxa Ugartetxeari galdetegia

- Zer kontu dezakezu Pauloren klaseetan egotetik, nolakoak ziren, zer ikasi zenuen?
- Nolakoak zen Pauloren jarrera klasean?
- Zeintzuk esango zenituzke direla Freirek egindako ekarpen garrantzitsuenak?
- Zer litzateke Freireren aburuz irakasteko eduki legitimoa, hau da, zer gai landu beharko lirateke eskoletan zein goragoko hezkuntza mailatan? Hauek lantzen direla uste al duzu?
- Uste al duzu Hezkuntzak bere funtzioa betetzen duela, Freirek alfabetizazioa ulertzeko duen modua kontuan hartuta, hots: " informazioaren, erabilitako hizkuntzen, kodigo sinbolikoen deskodifikazioa ahalbidetzen duen alfabetizazioa, errealitate sozial, politiko eta ekonomikoaren ulermen kritikoa suposatzen duen prozesu moduan ulertuta"
- Zer praktika ezagutzen dituzu bere pentsamenduan inspiratutakoak?
- Euskal Herrian Freireren aztarnarik aurki dezakegu?
- Uste al duzu << Hezkuntza Herrikoia >> proposamena aurrera eraman daitekeela Euskal Herrian, dauden hezkuntza legeak kontuan hartuz?
- Horrelako proposamen transformatzaile bat eman daiteke indarrean dagoen sistemaren barruan, hots, globalizazioaren barruan? Zer oztopo aurkituko ditugula uste duzu?
- Zelan bizi du zure ustez egungo gizarteak bizi duen errealitatea? Jarrera kritiko eta transformatzailerik al du? Horren beharra al dago?